



EZINTASUNA EDO  
MUGIKORTASUN  
MURRIZTUA DUTEN  
BIDAIARIEI AIREKO  
GARRAIOAN IBILTZEKO  
EUROPAKO MERKATU  
BATERATUAN AITORTZEN  
ZAIZKIEN ESKUBIDEEI  
BURUZKO GIDALIBURUA



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

eginaren  
**eginez**



## **Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten bidaiariei aireko garraioan ibiltzeko europako merkatu bateratuan aitortzen zaizkien eskubideei buruzko gidaliburua**

Europako merkatu bateratuan, zer eskubide aitortzen zaizkie ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen aireko garraioan?

Aireko garraioan erabiltzaile guztiei dagozkien eskubideez gain, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen eskubide hauek aitortzen zaizkie Europako merkatu bateratuan:

1.- Mugikortasun murriztua duten pertsonen lehentasuna dute aireko garraioan;

2.- Hegazkin-konpainiak ezin du baztertu Europako merkatu bateratutik irtengo den edo Europako merkatu bateratura iritsiko den hegaldi baterako erreserbarik ezintasuna edo mugikortasun murriztua dela eta, segurtasun-arrazoiengatik ez bada (legez ezarritako segurtasun-eskakizunak betetzeko) edo aireontzia oso txikia ez bada (hegazkina bera edo haren atekak oso txikiak badira, fisikoki ezinezkoa izan daiteke ezintasuna edo mugikortasun murriztua duen pertsona ontzian sartzea edo garraiatzea).

3.- Bidaia konbinatu bat, opor konbinatuak edo zirkuitu konbinatuak saltzean, bidaia hori egingo duen hegazkin-konpainiak eskuragarri jarri beharko ditu ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen gainean hartuko dituen segurtasun-neurriak, bai eta aireontziaren tamaina dela-eta pertsona horiei edo horien mugikortasun-ekipoari jarritako murrizketak ere;

(Segurtasun-arrazoiak direla-eta, hegazkin-konpainiak, haren agenteak edo bidaia-antolatzaileak eskubidea izango dute mugikortasun murriztuko pertsonarekin batera hari lagunduko dion pertsona bat joatea eskatzeko).

4.- Aireportuetan irisgarritasuna izateko eskubidea;

5.- Aireportuetan eta hegazkinean laguntza jasotzeko eskubidea, betiere laguntza-behar partikular horiek hegazkin-konpainiarekin, haren agenteari edo bidaia-antolatzaileari jakinarazten bazaizkio, hegaldiak aurreikusita duen irteera-ordua baino gutxienez 48 ordu lehenago;

6.- Mugikortasun-ekipoak edo gurpil-aulkiak galdu edo hondatu badira, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, "nazioarteko, komunitateko eta nazioeko eskubidearen arauari jarraiki".



## **Segurtasun-arrazoiengatik edo aireontziaren tamainagatik erreserba edo ontziratzea ukatzen bada, bidaiariak dituen eskubideak**

Segurtasun-arrazoiengatik edo aireontziaren tamainagatik erreserba egitea edo ontziratzea ukatzen bazaio mugikortasun murriztua duen pertsonari, hegazkin-konpainiak, haren agenteak edo bidaia-antolatzaileak "ahalegina egin beharko dute pertsona horri aukera onargarri bat proposatzeko".

Zehazki, dirua bueltan jasotzeko aukera eman beharko diote, edota ordezko garraio modu bat, 261/2004 (EE) Erregelamenduan ezarritako baldintzetan (hau da, ontziratzea ukatzen zaion beste edozein bidaiariren baldintza berberetan).

## **Aireportuan eta hegazkinean laguntza jasotzeko eskubidea**

Aireportuan eta hegazkinean laguntza jasotzeko eskubidearen barruan:

1) Aireportuko erakunde kudeatzailearen erantzukizuna da behar diren neurriak hartzea hauetarako:

- irisgarritasuna bermatzeko, bai aireportuetan, bai hegazkinean sartzeko eta handik irteteko;
- ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak hegazkinaren atetik egokitutako eserlekura eramateko, eta alderantziz, eta ekipajea hegazkinean bertan gordetzeko eta hartzeko;
- eta galdutako edo hondatutako mugikortasun-ekipoa aldi baterako ordezkatzeko, baina ordezko ekipoak ez du zertan jatorrizkoaren berdina izan.

2) Hegazkin-konpainiaren ardura da:

- mugikortasun murriztuko pertsona bakoitzeko 2 mugikortasun-ekipo eramatea, gurpil-aulkiak barne (48 h lehenagotik jakinarazten bada eta hegazkinaren espazio-mugak galarazten ez badu);
- mugikortasun murriztua duen pertsona zerbitzuetara eramateko laguntza ematea;
- mugikortasun murriztuko pertsonak laguntzaile bat baldin badu, ahalegina egitea laguntzaile hori mugikortasun murriztua duen pertsonaren ondoan eserita joan dadin.



## Mugikortasun-ekipoak edo gurpil-aulkiak galtzen edo hondatzen badira, bidaiariak dituen eskubideak

1) Ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak aireko garraioan dituzten eskubideei buruz uztailaren 5eko 1107/2006 (EE) Erregelamenduan esaten da gurpil-aulkia hondatzen edo galtzen bada kalte-ordaina eman behar dela "nazioarteko, komunitateko eta nazioko eskubidearen arauetara jarraiki".

Indarrean den legerian, ordea, ez da argi gelditzen gurpil-aulkia eta gainerako mugikortasun-ekipoak ekipajetzat jo behar diren aireko garraioan.

Garrantzi handiko kontua da, horren baitan baitago aplikatu beharreko araudia (Kode Zibila ekipajea ez bada, edo bestela, Montrealeko Hitzarmena); eta aldi berean, horren arabera izango da gurpil-aulkia edo beste mugikortasun-ekiporen bat galduz edo hondatuz gero bidaiariak jasoko duen kalte-ordainaren zenbatekoa.

Gaurdaino, ez dugu aurkitu gurpil-aulkiak eta gainerako mugikortasun-aparatuak ekipajetzat ez jotzeko espresuki adierazten duen berariazko legeriarik, ezta horrekin lotutako epairik ere. Europako Batzordearen web orrian, hegazkineko bidaiarien eskubideei buruzko gidaliburu bat dago ikusgai, eta behin ere ez da espresuki adierazten gurpil-aulkiak eta gainerako mugikortasun-aparatuak ekipajetzat jo behar ez direnik.

Han esaten denez, izatez hobeto da aparatu horiek ekipajetzat ez hartzea, baina egungo legeriari jarraiki, fakturatzen badira, orduan bai, ekipajetzat joko dira.

2) Errealitatean, hegazkin-konpainiek ekipajetzat jotzen dituzte gurpil-aulkiak eta gainerako mugikortasun-aparatuak. AENAK ere hala egiten du bere web orrian.

Arazoa da ekipajearen gaineko kalteei buruzko araudiari jarraiki (Montrealeko Hitzarmena eta hura garatzen duen araudia), ekipajea galdu/matxuratu zaion bidaiariak gehienez jaso dezakeen kalte-ordaina 1131 "igorpen-eskubide bereziak" dela, eta hori gaur egun, 2013ko irailaren 19an, 1.277 € izango litzateke (Nazioarteko Diru Funtsaren balioaren arabera); eta normalean, horrekin ez dugu inolaz ere gurpil-aulkia edo mugikortasun-ekipoa ordainduko.

Indarrean den legeria kontuan izanik, konponbide hauek izan ditzake arazoak:

a) gurpil-aulkiaren / mugikortasun-ekipoaren gaineko matxurak ordainduko dituen aseguruaren kontratatzea;



b) ekipajearen “balioaren aitortpen berezia” egitea. Horretarako, hegazkin-konpainiaren inprimaki bat bete behar da, zer mugikortasun-ekiporekin bidaiatuko dugun eta ekipo horren balioa adieraziz. Konpainiak balioaren aitortpen berezia onartzen badu, aitortutako balioaren mugaraino iritsiko da haren erantzukizuna. Izapide horri buruz jakin beharrekoak:

- fakturazioko mahaietan egiten da (aurretik joan behar da, konpainiako langileek aitortutakoa egiaztatu behar dutelako). Ekipoaren erosketa-fakturaren kopia eramatea aholkatzen da, haren balioa zalantzan jarriko balitz ere.
- hegazkin-konpainia bakoitzak bere gehieneko muga jartzen die balioaren aitortpen bereziei. Hala, esate baterako, Iberiak 5.000 € USAko gehieneko muga onartzen du bidaiariko aitortpenaren gehieneko balioztat; Air Europak, berriz, 4.000 €-ko muga jartzen du (hegazkin-konpainia horien web orrietatik ateratako informazioa).
- ordaindu egin behar da, hegazkin-konpainia bakoitzaren arabera (aitortutako balioaren % bat).
- bidaiari hegazkin-konpainia batean baino gehiagotan ibiliko bagara, guztiek onartu behar dute aitortutako balioa.

3) Gorabeheraren bat gertatuz gero (aparatura puskatu, galdu, hondatu edo atzeratu), hegazkin-konpainiaren mahaira joan edo agentearengana jo behar da berehala, une horretan dagozkion kexa jartzeko. Horretarako, inprimaki bat bete behar du, Ekipaje Irregularitasunaren Jakinarazpena (PIR); pauso hori ezinbestekoa da gorabeheraz ohartarazteko eta hegazkin-konpainiak dagozkion izapideak egin ditzan.

## **Non erreklamatu behar dut aireko garraioan mugikortasun murriztuko pertsonak dituzten eskubideei buruzko Europako araudia urratu bada?**

Mugikortasun murriztuko pertsonak dituzten eskubideei buruzko Europako araudia aplikatzen dela bermatzeko erakunde arduradunak izendatu beharra dute estatu kideek.

Estatu bakoitzean horretarako dauden erakunde eskudunak eta haien helbideak Europako Batzordearen web orrian daude argitaratuta.



Mugikortasun murriztua duen pertsona batek araudi hori urratu dela uste badu, erakunde horiei jakinarazi ahal izango die (aireportuko erakunde kudeatzaileari edo hegazkin-konpainiari ez ezik, dagokion moduan).

## Lotutako legedia

- 1107/2006 (EE) Erregelamendua, uztailaren 5koa, ezintasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonak aireko garraioan dituzten eskubideei buruzkoa
- Montrealeko Hitzarmena (eta Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundeak onartutako igorpen-eskubide berezien eguneratzea)
- 2027/97 (EE) Erregelamendua, maiatzaren 13ko 889/2002 (EE) Erregelamenduak aldatua.
- 1544/2007 Errege Dekretua, azaroaren 23koa, ezintasuna duten pertsonak garraio bideak erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta bazterketa gabeko oinarritzko baldintzak arautzen dituenak.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 261/2004 (EE) Erregelamendua, ontziratzea galarazi bada edo hegaldia bertan behera utzi badute edo asko atzeratu bada bidaiariei ordaina eta laguntza emateko arau komunak ezartzen dituenak
- AENAREN web orria ([www.aena.es](http://www.aena.es))
- Europako Batzordearen web orria ([www.europa.eu/viajar/manual](http://www.europa.eu/viajar/manual) "hegazkineko bidaiarien eskubideei" buruzkoa, eta "mugikortasun murriztua duten bidaiarientzako" eskuliburua)

ARGITALPEN HAU 2013KO IRAILEAN EDITATU ZEN ETA BERE EDUKIA ORDURA ARTEKO ARAUDIAN OINARRITUTA DAGO.

